

BALEIKE

200 pta.

65. zenb.



● Joseba Ossak irabazi du Julene Azpeitia literatur saria

● Glorioso San Telmo baporearen azken kanpaina?

● Ziklo-krosa: Oier Egaña mundialean; Igor Beristain zerrendatik at

● **Justo Osa zumaiarra, Afrikaren alde lanean**

ERROTA



OPIL OKINDEGIA

*era guztietako tarta
eta pastelak*

LABEA:

Santixo auzoa TEL: 943 86 00 00

Erribera, 2 TEL: 943 14 30 01

Juan Belmonte, 5 TEL: 943 86 03 00

Basadi, 4 TEL: 943 14 32 21

P. Etxezarreta, 42 TEL: 943 86 25 28

Alai, 8 TEL: 943 86 25 60

ALAI AUZATEGIA, 12 TEL: 943 860 258



**Bertan
aurkituko dituzu:**

- Inguruko baserrietako haragirik onena
- Txarkuteria bikaina
- Geuk aurrez prestatutako jaki goxoak

Foronda kultur etxea
tel.: 943 86 04 12
faxes: 943 86 17 42
e-posta: baleike@yahoo.com

Argitaratzailea

ZUMAIKO GAZTE BATZORDEA

Administrazio batzardea

Xabier Azkue
Uxua Ostolaza
Aintzane del Pilar

Erredakzio batzardea

Antxoka Agirre
Esther Aizpurua
Eneko Dorransoro
Ane Osa

Joseba Ossa

J.L. Romatet

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Kazetariak

Antxoka Agirre
Gorka Zabaleta
J.L. Romatet

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub
taldea, Ingurugiro tailer
eskola, Miriam Romatet,
Jon Manzisidor,
Fototeka,
Andoni Ormazuri e.a.

Komikia

Amaia Ballesteros

Argazkiak

Baleike
Xabier Usabiaga
Azala: Foto Mertzxe

Diseinua

Juan Luis Blanco

Maketazioa

Argi Aizpurua

Hizkuntz zuzenketa

Xabier Azkue

Banaketa

Andoni Ormazuri

Publizitatea

Uxua Ostolaza
(943 861056)

Inprimategia

Gertu Inprimategia
(Zubillaga - Onati)

Tirada

1.000 ale

Lege gordailua

SS-405/94

ISSN

1136-8594

Baleikek ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen eta iritzien erantzuki-
zunik.

Zumaiako Gurutze Gorria, larrialdian



Gorka Zabaleta

Ez da denbora gehiegi pasa Zumaiako herria behar bezala larrialdi zerbitzu bat eskatzeko mobilizatu zenetik. Bilerak, manifestazioak, kontzentrazioak han eta hemen... Ez du euri gehiegi egin borroka haren arrastoak galtzeko, baina urak inoiz baino nahasiago datoz Narrondoko ezker ibarretik behera, Zumaiako Gurutze Gorria larrialdi egoeran baitago. Duela aste batzuetatik ateak itxita ditu; ez dago inor bertan. Anbulantziak ere ez daude erabiltzeko moduan, bat garajeen sartuta baitago, izorratuta, eta bestea atarian dute, Txitxarroko igoeran istripua izan eta aseguruak ez zutela konturatu zirenetik. Gaur egun, Zumaiako Gurutze Gorriak ez dio zerbitzurik eskaintzen herriari -udakoa albo batera utzita-. Zergatik iritsi garen puntu honetara arduradunek argitu beharko dute. Gaitza nondik datorren, ordea, asma genezake. Duela urte batzuk Gurutze Gorriak prestazio soziala egin behar zuten objektoreak hartzea erabaki zuen. Estatuaren beharrei men egitea, diru mordoaren truke; borondatez aritzen zirenen gogoia, behartuta dagoenaren borondate ezaren truke. Herriari laguntzea helburu zuen erakundea, objektoreak Estatuaren hankapetik pasazten dituen instituzioa bilakatu da. Norbaitek etekina aterako zuen, ziur, baina herriak asko galdu du. Galdera bi: Zer egin behar dute 2003tik aurrera? Eta guk ordura arte?

Premiazko telefonoak

Kultur Etxea	943 86 10 56	Ludoteka	943 14 32 64
Polikiroldegia	943 86 20 21	Tren geltokia	943 86 11 27
Gurutze gorria	943 86 10 93	Taxi geltokia	943 86 13 60
Udaletxea	943 86 50 25	Bake epaitegia	943 86 00 67
Gizarte Zerbitzuak	943 86 22 00	Posta	943 86 15 00
Osasun zentrua	943 86 08 62	Udaltzaingoa	943 86 18 70
San Juan Egoitza	943 86 12 73	Pilotalekua	943 86 21 72
Pentsiodunen Egoitza	943 86 17 00	Larrialdi zerbitzua	943 46 11 11
Musika eskola	943 86 11 83	Txomin Agirre euskaltegia	943 86 02 48

Argitalpen honen edizioak laguntzaileak:



Zumaiako Udala



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



gizarte-ekintza
obra social



Zer erosi?



JOANITO DORRONSORO

Garai batean alferrikako galdera izango zen hau, zer erosi?. Ez baitzegoen non eta zer erosi aukerarik eta ezta zerekin ere. Gogoratzen? Mixeria gorria. Gaur ere halatsu mundu zabaleko bazter asko eta askotan. Baina gurean gehienok behintzat ondo bizi gara gaur egun. Jan-edana nahi ala eskura. Joan dendara eta hasi fruta-berduretatik, segi arrain-harategi, jogur-esneki eta garbikuntza tresnak pasa ondoren okindegietan bukatuz. Pentsatu egin behar goizero etxeoandreak edo etxekogizonak atal bakoitzean zer jeneroklase karrantatu.

Jainkoak jakin nondikakoa dugun sagar gorri edo legatze beltz hori. *Aukera ugari eta egokiera urri* dio esaera zaharrak edo *aukera maukera azkenean okerra*. Jenero eskasetik izan ohi da asko mundu honetan eta onetik berriz gutxi, ez al da hala? Kalitate onekoa zer den jakitea komeniko litzaiguke prezioarekin batera, askotan merkeena baita garestiena. Hori lehenbiziko irizpidea: zer erosten dugun jakitea, nolakoa den eskuratu nahi genukeen produktua. Dena da askotan itxura ederreko eta ez da erreza azal ikusgarriak estaltzen duen mamiaren berri ikustea.

Eta kontseju ematen hasi garenez, segi dezagun bide beretik. Hobe gure herrian erostea kanpoan baino. Denda txikiak nahiago handiak baino. Multinazional handi horiek ez dira gure lagun, motzean behar bada bai, baina gerora begira, beraietara ohituerazten gaituztenean morrontza sor diezagukete. Bertako produktuak erosi ahal dela, gure baserritarrek sortuak, Euskalerriko enpresetan landuak edo gure arrantzaleek ekarriak. Etiketak begiratu produktua nongoa den jakiteko eta kalitate-prezio gorabeheran berdintsu izanez gero dudarik gabe hemen bertakoa erostea da egokiena eta euskeraz baletor areago. Baserritarrek eta arrantzaleek horrenbeste eta gehiago merezi dute eta gainera gehienetan bera da osasungarriena guretzat ere.

Duela gutxi entzun dut, propaganda kanpaina berri bati ekitera doazela, **garaian garaiko gauzak** izenekoa. Ez dakit zehaztasun haundirik, baina interesgarria iruditzen zait; porruak, berdela, tomatea edo dena delakoa bere garaian eta naturala jaten jakitea asko jakitea baita norberaren eta gure gizarteko lehen sektorearen probetxurako. Kontserbak ondo datoz estuasunetarako, baina bestela sortzailearen eskutik eroslearengana zenbat eta zuzenago bitartekorik gabe etorri hobe. Azkenik, ez dago gaizki erreparatzea jakia zer ontziklasetan datorkigun: kristalezko ontzian badator adibidez, zeuk ordaindu beharko duzu eta gero zakarrontzira bota gainera alper alperrik, ekonomian galera eta ekologian arazoa sortuz.

Hara zer gai politiko bururatu zaidan gaurkoan. Eguneroko erabakitxo xume hauetxek ez ote ditugu gero eraginkorrenak gure Herria eraikitzeko?

On degizuela denoi.

7 Arrain eta mariskoak
MARES Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak
 7 MARES IZOITUAK
 Zuloaga plaza, 1
 Tel. 862309

HARATEGIA
 URDAITEGIA
Augustin
 OL HARAKINA
 Itzurun zuhaitzbidea, 1
 Tel. 862430

BASADI **ALBAITARITZA KLINIKA**
 DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
 IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
 -ALBAITARIAK-
 Basadi, 7 behea
 Tel. 143310
 Tel. mugikorra: 908- 775508
 Larrialdiak
 - 24 ordu
 - zeure etxean

Kirol Portuko hirugarren faseko lanak hasi dira

Pasa dugun urtarrileko hilabete honetan berriz ere mugimenduan hasi dira Kirol Portu inguruan langile, makina eta gruak. Oraingo honetan, alde batetik, Kirol Portuko hirugarren faseko lanak egingo dira. Batetik, merkataritza eta aisialdiari lotutako eraikinak egingo dira bertan, eta bestetik, Portuaren inguruan, eta Urola ibaiari itsatsita, moila berri bat egingo da.

Hasiera batetik Zumaiako Kirol Portua hiru fasetan egitea aurreikusi zen. Lehen faseko lanetan portuaren oinarrizko azpiegitura guztia egin zen, hau da, gunea, portu erabileretarako egokitzeko lan guztiak egitea (dragaketak, eustarriak, moilak...), instalakuntza nautikorako beharrezko diren zerbitzuentzako azpiegiturak egitea eta portuko gune publikoen urbanizazioa. Bigarren fasean portuko beharrezko zerbitzu lanak egin ziren: Zumaiako Kirol Portuko kaien edo pantalanen %40a, hau da, 210 atrakaleku inguru, gasolindegia, ontzientzako igogailua, tailerra, kapitaintza eraikina, jantzilekuak, dutxak eta komunak.

Lehen bi fase hauetako lanak eginak daude eta jada Zumaiako Kirol Portua, ongi dakigun bezala, martxan dago, orain urte eta erdi inguru inauguratu baitzen portua. Orain hilabete inguru, aldiz, Kirol Portua osatzeko azken



lanak egiten hasi dira, hirugarren faseko lanak. Eraikin hauek egingo dituen enpresa Ibargoien izenekoa izango da.

Zumaiako Kirol Portuaren egitasmoan merkataritza, aisialdi eta gizarte arloko erabilpenei zuzenduta dagoen lur sail bat aurreikusten da. Hirugarren faseko lanetan iragarrita dagoena da 634 errepeidea eta ur sailaren artean dagoen 3.562 m²-ko lur saila urbanizatzea eta hainbat lokalen eraikitzea. Fase honetan portuari falta zaizkien instalakuntza berriak eraikiko dira. Lanak egiten hasi direnean, lokal hauen erabilpen zehatza ez dago oraindik zehaztuta, baina Proiektuaren eta Zumaiako Portuaren Sistema Orokorrean esaten denaren arabera, merkataritzari eta aisialdiari lotutako jardueri zuzenduta joango dira: nabigaziorako, arrantzarako eta itsas kiroletarako materialen salmenta, arropa dendak, tabernak, jatetxeak, terrazak, bela eskola, etab. Eraikin

hauetz gain, falta diren pantalan batzuk ezartzea ere pentsatzenda, baina beti ere agertzen diren eskaeren arabera ezarriko dira.

Hirugarren faseko lanak urtarrilean hasi dira eta datorren udarako lokal berri hauetako batzuk martxan egotea espero da.

Moila berria

Kirol Portuaren aldamenean, baina honekin zerikusirik ez duela, Madrilgo Gobernuak Portuen sailak Urola ibaiari itsatsita moila berri bat egiteari ekin dio. Hasiera batean moila honen erabilera librea izango da, herriko moila bezala. Aldi berean, Astilleros Balenciagak bertan egin izango dituzte orain herriko moilan egiten dituzten lanak, eta diru aldetik ondo etorriko zaie, alboan izango baitute moila berria. Moila berri hori oso osorik Madrilek finantzatuko du.

◀ JUAN LUIS ROMATET

dekorazioa
ALBERDI

696 726188
943 143261

• Eskaiola
• Pladur-a



Ignacio Zuloaga enparantza Tel. 943 861157

Alberdi
Gizonetzkoen moda




Erribera kalea, 6
Tel. 861155

Langabezia gorantz 1999an

Azken urteotan Zumaian langabezian dauden pertsonen kopuruak behera egin badu ere, aspalditik ezagutzen ez genuen egoera on batetara iritsiz, 1999 urteko datuak ez dira hain itxaropetsuak, gure herrian langabeziak gora egin baitu. Igoera honen kopurua ez da handia, urte hasieran baino bos lagun gehiago daude lanik gabe, baina Euskal Herri mailan langabeziak behera egin duen urtean, Zumaian gora egitea nahiko albiste kezkarria da.

1998ko amaieran 209 langabetu zumaian zeuden INEMeko zerrendetan. 1999 urtea aurrera zihoan heinean langabezi mailak itxuragabe egin zuen behera, udara mailan urte hasieran baino 50 pertsona gutxiago zeudelarik lanik gabe. Egoera honen arrazoia udan turismoa dela eta sortzen diren lanetan aurki daitezke: tabernak, kantineak, etab. Hala ere egoera honek ez zuen asko iraun, udara amaitzean lanik gabeko pertsonak berriro gora egin baitzuen, eta ez bakarrik udara ondorengo hilabeteetan, langabeziak gora egin du urteko azken hilabeteotan ere.

Hiru hilabeteoro INEMek bidaltzen dituen datuei jaramon egiten badiegu, 1998ko abenduaren 31ean 209 langabetu zeuden Zumaian. 99ko martxoaren amaieran 185. Ekainaren 30ean lanik gabe zeuden zumaian 158 ziren. Irailaren 30ean aldiz, langabeziak gora egin zuen eta 179 ziren lanik gabeko zumaian. Amaitzeko, 1999ko urte amaieran 214 zen lanik ez



zuten lagun kopurua, urte hasieran baino bost gehiago.

Emakumeen egoera kezkarria

Langabezia datu hauek kezkarriak badira, are kezkarriagoa da langabezian dauden emakumeen kopurua. Lanik gabeko emakumeen kopuruak ia hirukoiztu egiten du gizonekoena. 1999aren amaieran lanik gabeko 214 lagun horietatik 61 besterik ez ziren gizonekoak, emakumeak berriz 153. 153 langabetu horietatik 95 emakume 20 eta 34 urte bitartekoak dira, emakumeek lana aurkitzeko dituzten zailtasunen adibide garbi bat. Datuei beste begirada bat emanda, ohartzen gara Zumaian langabetuen ikasketa mailak gora egin duela. Dagoeneko ez dago ikasketarik ez duen langabeturik, eta 4 besterik ez dira lehen hezkun-

tzako titulurik ez dutenak. Bestetik, goi mailako titulua duten 16 lagun daude INEMeko zerrendetan izen emanda.

Azkenik, Kualifikaziorik gabeko langileak dira gehientsuenak zerrendetan, guztira 57. Ondoren zerbitzuetan lan egin nahiko luketen pertsonak datoz, 39 guztira, eta atzetik teknikoak, administratzen lan egin nahiko luketenak etab. Datuen arabera, langabeziarik ez dagoen sail eskasetako bat ejertzittoa da.

Guzti hau gure ingurune herrietan langabeziak nabarmen behera egin duenean aurkitzen dugu. Espero dezagun, egoerak buelta ematen duenean, Zumaian albiste onak izatea.

◀ JUAN LUIS ROMATEZ

Antonio Etxabe



*Gizonezkoen
erropak*



Zumbillo, 4 Tel. 861407



Itzurun, 1 Tel. 143224



Kale nagusia, 2 Tel. 861521



Beduako industrigunea martxan

Bedua inguruko Gorostiaga industrigunea martxa handian doa. Zumaiko Udalak industrigunea egiteko lur sailak erosi zituenetik, jada hiru eraikin handi eginak daude eta beste bizpahiru egiten edo proiektuan daude. Zumaiaiko industrigune berri horretara herriko enpresa batzuk salto egin dute. Adibidez pasa den udazkenetik Gorostiagan ari da lanean orain arte Narrondo auzoan kokatuta zegoen Korta enpresa. Xanti eta Etxabe elektrizitatea bera, besteak beste, Beduan kokatu diren beste enpresa batzuk. Orain Oikiarantz ari da luzatzen industrigune berria, bertan bi eraikin egiten ari direlarik.



Lubakiko jatetxearen inaugurazioa

Pasa den hilaren 25ean ireki zen Lubaki kiroldegiko taberna-jatetxea. Aurreko alean esan genuen bezala, zerbitzu berri honetako zuzendaritza Maite Ayerza eta Beñat Arroiabe bikoteari eman zion Zumaiaiko Udalak bost urtetarako. Beñat Arroiabek aipatu duenez, jatetxe honetan herriko gazteentzako sukaldaritza ikastaroak antolatzeko asmoa du sukaldari honek. Taberna eta jatetxe zerbitzu hau dagoeneko martxan dagoenez, kirola egiten ez duen jendeak jada edukiko du kiroldegira hurbiltzeko arrazoi garrantzitsu bat.



AUTO-ESKOLA



- Gida baimen guztiak ateratzeko baimendua

- Praktika eta azterketak Azpeitian

- GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

ZUMAI A

Basadi, 12 behea Tel. 861018

ad

**AUTOS
ZUMAI A**

Urola plaza 3-5
Tel: 943 86 14 85

Zumaia Madrilgo turismo eskaparatean

Bigarren urtez jarraian Zumaia herriak urtarrilaren 26tik 30era bitartean Madril en egin den turismoko feria internazionalen (FITUR 2000) bere eskaintza aurkeztu du. Zumaia herriak Eusko Jaurlaritzak duen stand handian bere lekua izan du eta herriari buruzko informazioa emateaz gain, inguruko bi herriekin, Zarautz eta Zestoarekin eskualde mailako turismo eskaintza bateratu bat eskaini dute. Ez da hau izango Zumaia parte hartuko duen turismo feria bakarra, aurten Bartzelonakoan eta Bilbokoan ere parte hartuko baitu.

Esan bezala bigarren urtea da gure herriak halako turismo feria batean parte hartzen duena. 1999an aurkeztu zuen lehen aldiz Zumaia bere eskaintza turismoan lan egiten duten profesionalen artean. Lehengo urtean feria honetan parte hartzearen arrazoiak Zumaia azken urteotan turismo gaitan izan duen aurrerapenetan aurki daiteke. Lehen ez bezala hotela dugu herrian eta dirudienek Itzurun gainean egiten ari diren beste hotel batzuk ere bidean dira. Bada baita ere beste jende mota bat erakar dezakeen kirol portu bat, kulturaz interesatua dagoen norbaitentzako ere bizpahiru museo, etab. Hala ere, nahiz eta turismoa erakartzeko modua izan, herria ez bada sail horretako ferietara aurkeztzen, esan liteke, dudarik gabe, herri horrek ez duela existitzen. Hori izan da gehienbat Zumaia ferian aurkezteko arrazoi garrantzitsuenetakoa.

Aipatu den bezala, Zumaia bere txokoa izan du Eusko Jaurlaritzaren standaren barne. "Pais Vasco con



mucho gusto" leloaren azpian herri eta bailarek bere eskaintza aurkezteko modua izan dute. Aurtengoan inoiz baino herri gehiagok eman dute jakitera bere baliabideak stand honen barne. Zumaia zuen tokira hainbat jende hurbildu omen da FITUR 2000k iraun dituen bost egunetan. Lehen egunetan tour-operadoreak eta agentzietako jendea, turismo munduko profesionalak izan dira stand hau bisitatu dituztenak, eta baita bidaietako aldizkariak egiten dituzten jendea ere. Azken asteburuan pasa diren bisitariak jende arrunta izan da, turismo munduan lan egiten ez duena, agian oporrak non pasako dituzten pentsatzen dagoena. Kontuan hartzen bada Zumaia etortzen den jende kopuru handi bat madrildarrak direla, behar-beharrezkoa da Madrileko feria horretan egotea.

FITUR 2000 honetan Zumaia turismoa erakartzeko egin duen foileto berria aurkeztu du. Bi foileto ezberdin egin dira: lehena euskaraz, gaztelera eta kataluniarrez, guztira 5.000 foileto, eta bigarrena euskaraz, frantsesez eta ingelesez, 2.500 ale. Ferian egon

direnek esan dutenez, oso harrera ona izan du foileto berri honek, eta atentzio handia piztu du. Turismo feria honetan, Udaleko propaganda emateaz gain, herriko hotel, museo, kirol portu eta beste hainbat ekintza pribatuetakoa propaganda ere egin da.

Ez da izango Madrilgoa aurten Zumaia parte hartuko duen feria bakarra, Bartzelonakoan eta Bilboko ExpoVacaciones-en ere aurkeztuko baitute beren eskaintza Zumaia arduradunek. Esan liteke Bartzelonako garrantzitsua dela Zumaia Madrilgoa baino, hona etortzen den bisitari kopuru handiena Kataluniakoak direlako. Gainera Bartzelonako feriarara agertzen den jendeak askoz ere informazio zehatzagoa eskatzen dute, beti ere gure ingurura etortzeko asmoa erakutsiz.

Badirudi, gauzak behar bezala joanez gero, herriko kaleak, aurreko urtean bezala, jendez gainezka izango ditugula. Hala izan bedi.

◀ JUAN LUIS ROMATET



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
Tel: 943 86 22 06



**OSKARBI
KIROLAK**

Alai Auzategia, 14 behea
Tel: 943 14 31 12



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19
Tel. 861433
Faxa: 861067

Mendi Astea 2000

Jada heldu zaizkigu Mendi Astearen egunak. Urtero gertatu ohi den bezala, otsailaren zehar, diapositiba emanaldiak eta mendiari buruzko erakusketa bat ikusteko aukera izango dugu Foronda Kultur Etxean. 2000 urteko Mendi Aste hau hilaren 21ean hasiko da Jose Ramon Eskibelen diapositiba emanaldi batekin eta otsailaren 29an amaituko da. Tartean lau diapositiba emanaldi eskainiko dira.

Esan bezala, otsailaren 21ean hasiko da aurtengo Mendi Astea 2000. Lehen egun horretan Jose Ramon Eskibel mendizalearen diapositiba emanaldia eskainiko da, honen izena "AKSU Pamir" delarik. Mendizaleek Jose Ramon etxeko mendietan ikusi dute bere lehenengo urratsak ematen. Ondoren Estatu Batuetako Yosemite zer ikasi zuen erakutsi zuen. Urte hauetako esperientziaren emaitza izan da Kinguiztanen bide berri bat irekitzea. Bide honen berri eskainiko da emanaldi honetan.

Otsailaren 22an "Laponia 96. Raid Báltica" diapositiba emanaldia aurkeztuko da Forondan. Ojos del Salado 6.858 espedizio kirol-zientifikoak zakurrek tiratuko trineoekin egindako bidaiaren erreportai grafikoa

dira diapositiba hauek. Bidaia ikusgarria dudarik gabe. Hirugarren diapositiba emanaldia otsailaren 23an izango da, eta bertan Jose Ramon Agirrerren "Bidaia nire erraietara: Nepal" emanaldia izango da ikusgai. Forondan eskainiko den diaporama hau barne-gogoeta pertsonal bat da, Nepalera egindako zenbait bidaiaren ondorengoa, gure artean dauden giza baloreen ingurukoa.

Mendi Aste honetako diapositiba emanaldiekin amaitzeko, Mikel Saez de Urabain mendizalearen "Kusun Kanguru. Nepaleko Himalaya" emanaldia eskainiko da Zumaian. Diapositiben bidez, neguan material gutxi eta aurrekontu txikiarekin, Himalayara egindako bidaia bat kontatzen digu Mikelek. Bertara joan eta izotz-bide zail bat ireki zuten bidaiari hauek Nepaleko mendi honetako ipar aurpegian.


Hauek dira mendi aste honetan Forondan eskainiko diren lau diapositiba emanaldiak. Hauetaz gai, argazki erakusketa bat ere jarriko da Forondako hormetan. Erakusketa honen izena "Bidaia nire erraietara. Nepal" da, eta Jose Ramon Agirrerren diaporamatik ateratako argazkiez



osatu dago. Argazki erakusketa hau, mendi astearen lehen egunetik, otsailaren 21etik bisitatu ahal izango da, eta atek hilaren amaieran, otsailaren 29an itxiko ditu.

Mendi Astea 2000 hau paisaia eta mendi batzuk ikusteko aukera ezin hobea da. Aprobetxa dezagun aukera hau.

◀ JUAN LUIS ROMATET



TXORTENA

sagardotegia

Oikian txotx!

Dagoeneko irekita

Aurrez deitu telefono honetara:
943 86 0554

Karmengo Ama, 14
E-20749 **Arroa** (Gipuzkoa)
Tel/Fax: +34 943 14 83 06
e-mail: bakun@euskalnet.net

finés
francés
francés
euskara
inglés
español
catalán
suomi
basc
català
finnès
francès
anglès
catalán
francès
castellano
finnès
inglés
basc
catalán

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

balezulo
importaturiko errofa eta artisautza


Basadi, 3

Jadarre, 18-2. D
Tel. 861449



BARRENETXEA
Garraioak
GARRAIO ASTUNAK

Joseba Ossa irabazle eta Imanol Azkue zumaiar onena Julene Azpeitia lehiaketan



Ez da sorpresarik izan urte honetan Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren irabazleak jakitean. XII. aldi honetan jada ohizkoak diren bi izen agertzen zaizkigu irabazleen artean: Joseba Ossa eta Imanol Azkue. Lehenak Julene Azpeitia lehiaketa irabazi du eta bigarrenak zumaiar onenaren saria. Bigarren saria Xabier Alday azpeitiarrarentzat izan da.

Ipuin lehiaketa honetara, guztira 29 ipuin aurkeztu ziren, horietatik 4 bakarrik zumaiarrek idatziak. Hainbat atzerapen izan ondoren, azkenean epaimahaia urtarrilaren 15ean elkartu zen Zumaiako Udaletxean ipuin lehiaketa erabakitzeke bilera egiteko. Epaimahaia euskal kultura munduan oso ezagunak diren lau pertsonak osatu zuten: Joxean Agirre, Nerea Azurmendi, Maria Jose Olaziregi eta Arantxa Urretabizkaia. Gaia luze eztabaidatu ondoren, epaimahaia osatzen zuten lagunak sariak honela banatu zituzten:

- Lehen saria, Kutzak ematen duen 325.000 pezetako saria, Joseba Ossa Altzibarren "Arrantzalearen mendeku, mendekuaren lasaitu" ipuinarentzat.

- Bigarren saria, Kutzak ematen duen 150.000 pezetako saria, Xabier Alday Amianoren "Gezurra" ipuinarentzat.

- Zumaiar onenaren saria, Zumaiako Udalak ematen duen 125.000 pezetako saria, Imanol Azkue Ibarbiaren "Futbola, telebista eta auto beltzak" ipuinarentzat.

Gogoratu ez dela bi zumaiar hauek ipuin lehiaketa honetan sariren bat jasotzen duten lehen aldia, aurreko urteko lehiaketan, adibidez, Imanol Azkue izan zen Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren irabazlea eta baita ere zumaiar onenaren saria jaso zuena "Lotan dago Laura" ipuinarekin. Josebak lehenago zumaiar onenaren saria bi aldiz eskuratua zuen eta

aurtengoan sari nagusia eskuratzeko adina meritu egin du.

Sari banaketa

Ipuin lehiaketa honetako hamabigarren edizioeko sari banaketa pasaden urtarrilaren 28an izan zen Foronda Kultur Etxean. Sariak banatzen Kutzaren partetik, lehen bi sarien diru-babesle bezala, Joxe Antonio Aramendi izan zen, eta zumaiar onenaren saria ematen, Maria Eugenia Arrizabalaga, Udaleko Kultur Zinegotzia. Bai sariak banatu aurretik eta baita ondoren ere tango emanaldi bat entzuteko aukera izan zen Forondako aretoan, Fanniplatz tango taldearen eskutik. Kuriosidade bezala aipa daiteke euskaraz egindako tango batzuk abestu zituztela, hori bai, inola ere Rio de la Platako doinua galdu gabe.

◀ JUAN LUIS ROMATET



**BASUSTA
ERRETEGIA**

Pantxita Etxezarreta, 25

Tel. 862073

**CORO
PRIETO**
Estelicista

Tel. 861322
Bonifazio Etxegarai plazatxoa z/g



Basadi Auzategia, 10 behea
Tel. 862051

**SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK**

Joseba Ossa:

“Orain idazle izateko gogoa piztu zaidak”

3 Joseba Ossa Zumaian irabazle, aurten sari potoloenaren jabe, gainera. Noiz arte jarraitu behar duk horrelakoetara aurkezten?

Urtero aurkeztea ere ez zaidak egokia iruditzen, baina aldian behin bai. Orain kanpora aurkezteko gogoa sartu zaidak. Sarietarako idazten ez bada zaila duk motibazio hori lortzea, eta sariak akuilu egokiak izaten dituk. Zumaian “korte” pixka bat ere ematen zidaan, eta bi aldiz saria irabazi ondoren eten bat egin nian. Batzuetan pentsatzen diat hobe litzatekeela Zumaian aurkeztu ez eta beste lehiaketa batzuetan saiatzea.

3 Jokin Zaitegi itzulpen lehiaketa ere irabazi duk, duela gutxi.

Bai, bosgarren aldiz, gainera. Lehiaketa horretan bai pentsatu izan dudala gehiago ez aurkeztea, beste batzuei ere aukera emateko. Antolatzailerek, berriz, aurkezteko esaten zidatek, jende gehiegi ez delako animatzen. Datorren urteko erronka diat ni ez aurkeztea, baina inguruko lagun batzuk konbentzitzea aurkez daitezen.

3 Idazletzat al daukaku heure burua?

Oraindik ez. Iruditzen zaidak idazle titulu hori merkeegi saltzen dutela, liburu bat idatzi eta idazletzat hartzen haute. Hori baino errespetu gehiago zeukeat “idazle” hitzari. Orain idazle izateko gogoa piztu zaidak, alegia, gehiago idazteko eta sarriago.

3 Lanbidetzat, beraz, itzultzaile?

Bai, nahiz eta itzuli ere gero eta gutxiago egiten dudan. Ez bada finlandieratik edo horrelakoren bat, zuzenketa lanak egiten ditiat, eta gainerakoa gestioa.

3 Noiz idazten duk? Zenbat?

Gauetz idazten diat, ahal denean. Egunez, ia ezer ez, lana eta umeekin ez dudalako denborarik izaten. Eta beti ere motibazio edo akuiluren bat daukadanean.

3 Zeintzuk dira erreferentziatzat dauzkazu idazleak?

Garbi-garbi inor ez. Adibidez, Josean Artzeren gauza batzuk asko gustatzen zaizkidak, beste batzuk ez hainbeste. Bernardo Atxagari ere halako puntu polit bat ikusten zioat, baina mito bat bilakatu den arren niretzat ez dik halako distira handirik. Gainera, nik ez diat nire burua literaturzale amorratu eta literatur aditutzat hartzen. Ez diat gehiegi irakurtzen. Musikan Mikel Laboa dudana bezala, literaturan ez diat debozio berezirik. Irakurri izan dudana gehiago izan duk pentsamenduaren eta bizimoduaren aldetik gustatu izan zaizkidanak, esate baterako Tolstoi bat, Gorki bera, edo Gandiren pentsamenduak ere bai.

3 Ipuina oso urrun kokatu duk.

Errusian kokatzen duk istorioa, baina Finlandiako mugatik oso hurbil. Arrantzale errusiar bat duk protagonista, baina natura, ingurua eta jendearen

izaerari dagokionez Finlandiaren antz handia dik. Horregatik, hurbiletik ezagutzen diat giro hura. Eta testuinguru historikoa Stalinen garaikoa duk, Finlandiari gerra deklaratu zioneko.

3 Emazteaz gain, zerk lotzen hau Finlandiari?

Hiru urteko egonaldia bertan. Hiru “negu luze” esaten diat batzuetan, han negua oso luzea eta hotza izan ohi delako. Hiru urte horietan makina bat gauza bizitzeko aukera izan nian, eta ipuin honetan han bizi izandako gauza asko zeudek, kaioen presentzia adibidez, bakardadea, jendearen barrura biltze hori, mendekuaren, gorrotoaren eta barne sentimenduen esperientzia hori.

3 Gainera han hasi hintzen ipuina idazten, ezta?

Idazten bai, erredakzioa han hasi nian, udan. Denbora baneukanez, koaderno bat eta boligrafoa hartu eta idazten hasi ninduan. Baina ideia hau, egia esan, urteetan ibili izan diat buruan: arrantzalearena, kaioa nola harra-patzen duen

3 Pentsatu al duk ipuina finlandierara itzultzea?

Behin esan zidatean ea “Inari, Laponiako lore” laponierara itzuliko nuen, beharbada argitaratu egingo zutela eta, baina 120 orrialde dituk eta hortxe gelditu huen kontua... Baina oraingo honetan esan nioan Miari, “animatuko al zinateke ipuina finlandierara itzultzea?” Igual baietz esan zidaan, baina errespetua sartzen diola. Nik nahiko nizek, istorioa bera interesgarria izan daitekeelako haientzat ere. Baliteke itzultzea, beraz.

◀ XABIER AZKUE

EGOKI



Erloju eta bitxidenda

E. Gurrutxaga plazan

EGUZKI
PUB



Koktel bereziak

Basadi Auzategia, 9-A 2-B

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza, 15
Tel. 862458

Glorioso San Telmoren azken kanpaina?

Arrantza ez da inoiz izan Zumaiako portuko jarduera nagusia. Arrantza-ontziak beti izan dira, baina merkataritza izan da, batik bat, Zumaiako kaiari bizitza eman diona. Azken 25 urteotan gutxienik, Zumaian arrantza-ontzi bakarra izan dugu, Osatarren Glorioso San Telmo, alegia. Egun hauetan pintura eman eta martxorako prestatzen ari dira, antxorarako. Gauzak asko aldatzen ez badira, hauxe izango da Gloriosok egingo duen azken kanpaina.



Kalean ahoz-ahoz dabil jadanik Osatarrek Glorioso San Telmo saldu egin dutela, baina hori ez da egia. Javierrek azaldu digu asmo horretan dabilzala, baina oraindik ez dutela erosle aproposik aurkitu: "Egia da saldu nahiko genukeela, eta pertsona bat ari da horretan, baina gero ikusi behar da nori saldu eta zenbatean". Iñakik uste du zaila dela Gloriosoren ezaugarritako bapora bat saltzea. "Bapora hau egurrezkoa da, eta gaur egun gehienak burnizkoak egiten dira. Egia esan, egoera onean dago eta oraindik urte batzuk erabiltzeko moduan dago, baina ez da erraza izango", azaldu digu.

Dena den, bapora saldu edo ez, ziurrenik Pordillosenekoek aurten egingo dute azken kanpaina Gloriosorekin. Bapora gaur egun hiru anaien artean eramaten dute: Jose Luis, Javier eta IÒaki. Batek behintzat uzteko erabakia hartu du, eta besteek ezingo lukete jarraitu haren laguntzarik gabe.

Itsasoko lanak asko erretzen du, baina horrelako erabaki bat hartzea mingarria da, are gehiago aitarengatik jasotako lanbidea bada. Javier 16 urterekin sartu zen baporean, aitarekin: "Ni 16 urterekin hasi nintzen, eta beste anaia 15ekin -Jose Luis-. IÒaki beranduago hasi zen, soldaduska eginda gero, 20 urterekin. Niri lagatzeak pena ematen dit, batez ere etxekoa delako. Ni umetatik

hemen ibili izan naiz. Barkua egiten ari zirenean ere hemen ibiltzen nintzen, arotzek lagatzen zuten egurra garbitzen, eta beste edozertan laguntzen. 24 urte egin ditut nik bapora honetan, eta denetik ikusi dut, ona, txarra...".

Frantsesekin berriro tirabirak

Azken urteotan bakea nagusi izan den arren, badirudi berriro tirabirak daudela arrantzale frantsesekin. Antxoaren kanpainaren atarian, Europak hartutako zenbait neurriekin ez daude ados euskal arrantzaleak, eta frantsesekin akordio batera iritsi nahi dute, 1992ko hitzarmenaren aurretiko guda-egoerara ez bueltatzeko. Europak arrantza-kuotak murriztu ditu, eta baita zenbait eremu ezarri. Javier eta Iñaki ez daude batera ados erabaki hauekin. "Nik ez dakit ze biologo klase dagoen gaur egun", bota du Javierrek. "Jarri diguten mugak ere ez du ez bururik ez hankarik", dio Iñakik. "Inork ezin dezake jakin antxoa nondik sartuko den, barrutik edo kanpotik. Mugaren barrutik sartzen bada, non egin behar dugu arrantzan?", azaldu du Javierrek.

Lehen askoz antxoa gehiago harra-patzen zela dio Javierrek: "Ni itsasoan hasi baino bi urte lehenago gogoratzen naiz atera eta nahi adina antxoa harra-patzen zutela. Nik uste dut sare pelagikoek kalte handia egin diotela, bai atunari, bai antxoari. Orain atuna-



rekin, Pilarica ailegatzan denean atunetako kostera bukatu da. Orain dela urte batzuk, Gabonak arte atunetan ibiltzen ginen. Pelagikoek izugarritzko kaltea egin dute”.

1992ko akordioaz geroztik, frantsesak eta euskaldunak sasoi ezberdinetan aritu dira arrantzan, eta ez da liskarrik egon itsasoan. Europako erabaki berriekin, ordea, batek daki zer gerta daitekeen.

Frantsesek Portugalek emandako kuota arrantzatzen dute, eta hori ez zaie zuzena iruditzen Iñakiri eta Javierri: “Antxoak harrapatzeko kupoak jaitsi behar badute, zergatik onartzen dute Portugalek Frantziari bere kupoak saltzea? Zein kontrol klase dago hor? Argi eta garbi esateko, frantsesek euren kupoak pasata zituzten, baina hala ere urte gutzia arrantzan segitzen zuten. Jaungoikoak daki zenbat harrapatzen zuten”.

Frantziako gobernuaren jarrera eta Madrilgoarena zeharo kontrajarriak omen dira: “Frantziako gobernuak bere arrantzaleen alde egiten du gogor, eta gu berriz ez gara ezer Madrilgoentzat. Gu ez gara existitzen beraiantzat”. Europak hartutako erabakiei ez die zentzu handirik ikusten Javierrek: “Zertarako jartzen dituzte kuotak eta mugak eta horrelakoak. Arrantzan jarduterik nahi ez badute eman diezagutela dirua, eta kitto, eta bestela beraiek joan daitezela itsasora”.

◀ GORKA ZABALETA

BELARDENDA
SIWA
 Izaga Garcia
 DIETISTA
 Esther Blanco
 OSTEOPATA - MASAJISTA
 Basadi, 5-C behea Tel. 143404 - 860012

INMOBILIARIA
TALAI
 BIDAIAK
 Ortega y gasset, 1 Tel. 143361 - 143323

Liburuak
 aldizkariak
 CDak
 komikiak
 eta
 fantzineak
 ERRIBERA 10
 TEL: 943 86 21 14

ttikittaka
haur
oinetakoak
 BALTASAR ETXABE 2/G TEL: 943 - 14 31 00 ZUMAIA

TXALAPARTA
 O P A R I A K
 Angeles Sorazu, 2
 Tel. 143089

ESTAZIO Kalea, 25 20.750 ZUMAIA
 GIPUZKOA Kalea, 33 20.800 ZARAUTZ
 (GIPUZKOA)
 Tel. (943) 86 07 78 - (943) 14 09 40
 Jardinen diseinu
 ...mantenimendua
 Nekazaritza zerbitzuak
 Kirol zeelaien mantenimendua
 Txostenak ...
 ahokularitza teknikoak,
 Baioraziak
TXINGURRI
 Koop. Elk.
 Nekazaritza Injeneru Teknikoak

expert
ELEKTROGAILUAK
 MERTXE AIZPURUA
 Etxezarreta, 6 Tel. 861078

Amertxe
profesionalak gara
etor zaitez!
 Erribera kalea, 6 Tel./Faxa: 943 861707

Galdona
burdindegia
 Mendaro marinela, 1 Tel. 861117 - 143346
 Juan Belmonte, 15 Faxa. 861330

GANBARA
 Taberna
 Juan Belmonte, 5 Tel. 943 86 10 57

KAFETEGIA
GAROA
 JATETXEA
TXOMIN AGIRRE KAIA
 TEL. 943 86 21 81


gofi
 haur jantziak
 Amaia plaza z/g Tel. 860959

Justo Osa:
“Congo-ko beharrak ikusi nitunean gelditu in nintzan”

Hil honen zazpian zortzi urte bete dira Justo Osa Congo-ra jun zala. Zortzi urte hauetan, bere eskuekin duen abileziaz baliatuz batera eta bestera laguntzen ibili da, eta azkenaldian Jakaranda izeneko herrixka batean eskola bat eraikitzen ari da. Duela gutxi Zumaiara itzuli da bertara eramateko material eta dirua bildu asmoz, eta gu bisita hau aprobetxatuz bere berri jakin nahi izan dugu. Berak zioenez “Zumaiarrei eskerrak emateko” onartu omen zuen elkarrizketatzea. Zumaiarrok badugu ordea Justori zer eskertua.

B Zein da Zumaian dana utzi eta Afrikara juteko arrazoia?

Oporretara jun nintzala. Zumaiako mojei lanak iten nizkien sekula ezer kobratu gabe, eta beraiek zerbaiz nahi zien ordaindu. Handik misiolari bat etorri zanean ea jungo ote nintzan galdetu zien, eta nik baietz! Hara jun eta hango beharrak ikusi nitunean gelditu in nintzan.



B Nora jun zinan ba, misioren batera edo?

Han fraillien komentu batera. Eta handikan frantsesez hitzikan jakin gabe Kananga-ra, uren instalazioa egitera. Han bukatu nunean, moja karmelitei ura instalatu nien, gero obispuari, gero beste hiru-lau komentutan reparazioak in eta buelta Kinsasa-ra. Kinsasan merkau negruan materiala erosi eta Kananga-ra lanera. Han hiru urte t'erdi in nizkian eta Zumaira bakaziota etorri nituan.

Kananga Congo erdialdian dago. Handik Brasa Ville-ra jun nintzan, Congo Frantsesian. Handik Goma-ra, eta han lehendabiziko rebuelta etorri zanian buelta Kinsasa-ra. Handik Lukutola-ra. Eta tarte guztian lanean.

B Ordainetan zer jasotzen zendun indako lanangatik?

Kobratu? Ezta pentsatu ere! Neri dirua ematen zienian, ni erramientak erostera! Lukutolan egon nintzanean ONG batekin egon nintzan. Organizazio eskasa huan! Egurra eskatu eta eman ez. 40 dolar hituan metro kubikoa eta pagatu nahi ez. Hildakoen kajak egiteko ere ez neukan egurrik. Kejatzan hasi nituan eta aldin. Han geundela lapurretan in ziguen, “a base de metrallera” etxean sartu eta dana eramane. Beraiek diamantiak edo urria eskatzen zuen, eta guk euki ez!

B Diamante eta mineralen aberastasan handia omen dago han ezta?

Kriston aberastasuna, eta horrek izorratzen du dana. Amerikanuek ez

due lagatzen esplotatzen. Itxura danez lehen Mowuttu-k amerikanuei nahi zuen dana ematen zien, eta ematen aspertu zanean Amerikanuek Ruandesak bialdu zituen Congo-ra, eta orduan etorri huan gerra. Dana txikitu zien!

5 Gerrak erdi-erdian harrapatu al zintun?

Gerrak eta pillajiak! Pillajia da ahal dan guztia harrapatu eta bestea txikitu, eta hi kontra hasten bahaiz bi tiro jo eta fuera! Ni fraile jantzita egonda natxiok! Etorri huan pillaje bat eta madre belga batek esan zian: "Justo jantzi habitoa". "Nik habitoa?" "Bai bai, jantzi, soldaduak etortzen badia ikusi dezatela zu frailia zeala, bestela zibila zeala pentsauko due eta arrisku handia dago, asike jantzi". Eta han ibili nituan jolasian. Gero soldaduak jun ez. Pillajietan ahal zuten guztia harrapatzen zuen, eta gainontzekoa txikitu. Gelan lababua badago,

porrakin edo zeozerrekin jo eta puskatu, komunak puskatu, dutxak nola txapazkoak diran puskatu ezin, ba orduan eman obala-obala inda laga arte. Eta hurrengo egunean geurena etorri eskatzera, jatekorik ez duela eta, bezperan bertan pillajian egonda. Bat harrapatu zuen bezperan karmelita batek bere andrea eraman zuena ospitalera sugeak koska in ziolako.

5 Babesteko moduik ez al zenduen?

Ni ailegatu nintzarian hara, grupo elektrogenoa lapurtu ziguen. Orduan lehenbiziko lana Kananga herrira jun eta han soldaduak bilatzea izan zan. Kanpo militarerra jun, han komandanteakin hitzein eta bi soldadu ekarri etxera babes moduan. Jatorrak hituan ze jaten ematen zien mojek eta gero astean azkenian andreari zeozer erosteko ere diru pixkat ematen zien. Orduan soldaduak zauden han pufa! Han soldaduak profesionalak dituk.

5 Eta orain nola daude gauzak?

Beste estilo bat baino gauza berdina. Kabila-k poterea hartu zunean errespetu pixkat jarri zian, eta dirua ere izan zuen. Dolar bat 18.000.000 dira hango diruaren kanbioan. Kabilak urte t'erdian ondo euki du, lapurretik ez eta, baina orain...! Telebistan ateratzen da esanaz: "Herria, zuek zeate herria, zuek in behar dezue zuen legea! Zuek in behar dezue juez zuen kalietan, eta lapurrak hasten badira gobernua eskatu armamentua!"

5 Janariarekin eta gaixotasunekin ez al dezu arazorik izan zortzi urtean?

Bi aldiz pasa diat malaria. San Pedro-ri atea jota egon nintzan, baina ez zian ireki eta segi in behar! Zizko inda lagatzen dik eta medizina bezela kinina, eta horrek kalte gehio egiten dik! Jateko kontutan besteen aldean ondo gaude gu. Guk egunero jaten

degu hiru aldiz. Haiek arratsaldeko seiretan jaten badue gustora. Egunean behin jaten dun tipua "Kapitan jeneral"! Eta jateko arto-irina egosi, pasta in eta eskuakin tomate saltsetan edo dagonean busti eta aurrera.

5 Ba al dago han

hemengo jende gehio lanean?

Espainolak 500 bat egongo dituk Congo danian. Ondo ikusita zibek. Belgak dituk eskasak! Ejenplo baterako: neri hemen galtzak eman eta Bruselasera biajia debalde dauke, Bruselas-tik Congo-ra ere Caritas alemanak pagatzen du transportia. Congo-ra beraz debalde ailegatzen dituk. Galtza hori konsegitzeko obrero batek aste betian lana in behar dik debalde.

5 Zer moduzko lana egiten dute elizak eta ONGek horrelako tokitan?

Ni elizatik kanpo natxiok eta beste forma batera ikusten diat. Nik lehen zapatak erosi nahi banituan nere lanakin erosten nizkian. Apaizek

Han elizak aldatu beharra zikak. Dek hemen Franco-n denboran nola egoten hituan "desertores del arado" eta horrelako historiak, ba han orain berdin. Pobrezatik ihesteko elizan sartu.

Gure txokoa

• taberna •

kaxuelita eta pintxo ezberdinak

San Pedro kalea

English School
Harvest

Ingeleseko klaseak adin guztietan

San Jose, 11 bis Tel. 943 143334



ilarzi

Alai auzategia, 2
Tel. 943 14 33 24



Erribera kalea Tel. 861523

ILEAPAINDEGIA




San Telmo, 12
Tel. 860760

desgraziz ez dute gailera pakete bat erosten bere diruakin. Pobreza esaten die baina kriston aberastasuna zikek. Irabazitako dana Bruselasean gorde. Han elizak aldatu beharra zikak. Dek hemen Franco-n denboran nola egoten hituan "desertores del arado" eta horrelako historiak, ba han orain berdin. Pobrezatik ihesteko elizan sartu. ONGak berriz katxondeo bat dituk! Gomako refugiatuak eta egon ziranean, ONGak hara laguntzera jun eta beraien etxeen alkilerria 160.000 pezta pagatzen zuen. Karmelitek eskola bat in zuen eta 5 milioi kostatu omen zan, baina ONGak papel bat firmatzeko eman zien 17 milioi jartzen zuna. Ez dek ikusiko ONG bat lanean edozein moduz.

3 Eta orain Jakaranda-n zaude. Nola iritsi zinan hara?

Hori fraile salesianoen baserri bat da. Luxenburgoko ONG batek dirua eman eta baserria erosi zuten. Ni nintzan baserri hartan egon zan lehenbiziko zuria. Lukutola-tik aldin nunean salesianuekin hitzein eta hara jun nintzan. Hara jun aurretik Lukutola-ra bueltatu nintzan herramienten bila, esan nien haiek Zumaiako herriarenak zirala eta ni Congo-tik aldin arte haiek nere atzetik ibiliko zirala. Handik 3-4 egunera jun nintzan Lukutola-ra kamioiak eta hango misioiko zuri danak eraman ninduten hango barrio nagusira. Dana zan herria beraien kontra atera zala nik aldin behar nuala eta. Herriko jefia etorri zan eta "Hik hemen gelditu behar dek" esaten zian. Kamioia kargatu ezin! Halako batean esan nion: "Hi andriakin apartauta bahengo biziko al hintzan horrela?" "Sekula ez!" erantzun zian, "Orduan neri obligatu nahi al didak hauekin



bizitzen?". Eskerrak idea horrei! Karga kamioia!

3 Ze lan egiten dezute orain Jakarandan?

Han baserrian ez zegoen ezer! Argia justu-justu eta urik ez. Orduan putzu bat bukatzea izan zan lehen lana, zisterna bat in eta primeran! Dutzara juteko moduan! Nik egiten nitun lanak hauek dira: goizean jaiki eta gosaria preparatu eta bazkaritarako haragi gixatua preparatzen martxan jarri; hura ordaindu eta lanean segi. Bazkaldu eta ordu bitan lanean segi. Hiru t'erdik aldean 15 litro esnekin "arroz kon letxe" preparatu gaztientzako eta obreruentzako eta danentzako. Iluntzean bostetan lanari laga, pabelloi zahar batera jun eta han zegon pizarra batean frantsesa ikasteko metodoa erabiliz, lehenbiziko lekzioan jartzen duena arbelean apuntatu eta harekin fuego! Hamabost egunean frantsesa erakusten beraiei, eta nik jakin ez! Listoak dituk! Karretillan segituan letzen die, baina gero

geldituarazi in behar aber letra bakoitza zer dan.

3 Zu hara jun izana somatuko zuten orduan.

Hara jun eta hasi nituan makinak eta inbentuak egiten. Uren bonbik ez zeola, ba Larousse diktionarioa hartu eta hango fotografitikan bonba in. Han hasi hituan danak "Monsieur ingeniere" deituz eta nik esaten nien "si yo soy ingeniero tu eres imbecil". Orain Justo deitzen zie.

Ni hara jun nintzanean 18 behiek 4 litro esne ematen zituzten, eta txahala eukitzen zuten bakoitzean hil egiten zan. Orain 16 behi egongo dituk eta 60 litro ematen dituzte. Orain erriotik ura ekartzen ari gaituk, baina direktoria ez badute aldatzen jai zikau. Ez dik inorrek ondo tragatzen, ez salesianoek, ez beltzak, inorrek. Orain obreroak eta danak kontra atera zaizkio. Ni jaian etorri eta astelehenean obreroak jun ziran "oficina de trabajo"-ra deklarazio berbala egitera.



elektrizitatea, s.l.

instalazio elektrikoak
instalazio musikalak
antenak - parabolikoak
akumuladoreak
portero automatikoak
telefonía



Televés
Instalador
Oficial

Erribera, 18
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel./Faxa 943 - 143097
629 - 450777







ITSASKI

SUPERMERKATUA

Urumea kalea z/g
Tel. 143058

B Eskola jartzen ari omen zeate bertan.

Beraiek arotzeria dala esaten dute. Dena neuk montatutako makinekin: taladroa neuk indakoa, lijadorari lijak izorratu eta arreglatzerik ez zeuden, baina lija handiak bazabenez lijadora handitu nuan lija handiak ibiltzeko; artoa aletzeko makina, ebakitzeko zerra...

Luxenburgoko ONGak eskolaren konstrukzioa pagatzen du. Baserrira berriz kaleko umientzako da. Bat hartu nuen 14 urte eta 18 kilo pisatzen zituena, eta direktoriak bialdu nahi zuan.



Eskolan lebantea inda dago eta teilatua ipintzea falta zaigu.

B Zumaian orain hasi dezute kanpaina harako materiala biltzeko. Ze helbururekin?

Hemen diru pixkat balego han elektrizitatea ipiniko genduke, ze direktoriak ez digu dirurik emango. Orduak guk nahi deguna da abuztuan edo septienbrian kursoa hasterako jarrita eukitzea.

Makinak eta ere eman dizkigute hemen tailerretan, martxan dauden makinak. Hara eraman eta haiei erakutsi behar martxan jartzen.

B Nola eramaten dezute haraino hemen bildutako materiala?

Badaude gizon onak! Bruselasean badago tipo zahar bat misioneroei laguntzen diena. Caritas alemanakin konfiantza zikak eta berak eramaten dizkik Congo-ra. Hemendik Belgika-ra ere bazikak enpresa batekin tratua eta harek esan zian erdi hutsak juten zirela askotan kamioiak eta pasako ziala gauzen bila.

B Urte guzti hauetan ze harreman izan dezue Zumaiaekin?

Nik komunikazio handia kartaz karmelitekin daukat. Gero ezzerren aztarnik gabe parroko gazteek idatzi zien. Polita izan zan. Orduan haiekin komunikatzen hasi nintzan. Esaten nien: gu han erregiak bezela gaude.

Aitak eta amak eta Erribera kalea falta, lehen guk uste horiek gabe ez ginala biziko eta beitu. Ni zortzi urtean hau da bigarren aldia etortzen naizela, eta orain nobienbrian anaia hil zalako. Ni han gustora natxiok. Etorriko nauk berriz hemendik beste 4-5 urtera, ze Andre Mariak Aste Santukoa zizko inda zikak eta hura arreglatu nahi diat, geuk hasitakoa dek eta! Baina ni han geldituko nauk!

B Zer moduzko laguntza aurkitu dezue Zumaian?

Laguntza ikaragarria! Lehen etorri nintzanean ere bai! Jendeak esaten zian "Eskerrik asko!" eta eskerrik asko nei? Nik zer egiten det ba, lana besterik ez det egiten eta! Jendeari hemen gauza handia iruditzen zaio baina... gu hemen santuak jantzitzeko egon eta Congon bukatu misionero, joe!

B Aurrera begira zein helburu dituzu?

Nik konsegitzen badet han sei laguneko kooperatiba jartzea gustora hilko nauk. Eskolan hartu mutilak eta ikasi dezatela, eta beraien gremioekin demostratu nola egiten dan direkzio bat eramateko. Beraien kasa jarraitzeko gauza izan daitezela. Nik hori egiten badet, "pal otro barrio"! Horta ailegatu behar diat!

◀ Josu WALIÑO

OPTIKA ZUMAIA



Txomin Agirre kaia, 6
Tel./Faxa: 943-143057
Z U M A I A

TXOKO A
B
E
R
N
A



Artadi auzoa
Tel. 862189



Auto-konponketak
ELKAR

Estazioko kalea Tel. 943 86 02 01



PEUGEOT



TSY-BITSY
SCHOOL OF ENGLISH

Ingeleseko klaseak maila guztietan
Cambridgerako azterketak

Basadi, 2 Tel. 862373

Bosgarren edukiontzia, martxorako

Urtebeteko atzerapenarekin, laster izango ditugu kaleetan tetrabrik-ak eta plastiko eta metalezko ontziak bilduko dituen edukiontzi laranja



Urtebete egin du aldizkari honetan iragarri genuenetik ontziak biltzeko edukiontzia jaio zela, hirugarren edukiontzia edo edukiontzi laranja deritzona. Bertan, etxean pilatutako plastikozko eta metalezko ontziak, eta brik-ak jasoko dira.

Erditzea, ordea, nahi baino luzeagoa izan da, Gipuzkoako Foru Aldundia eta zabor hori biltzen duen enpresa (ECOEMBES) ez direlako ados jarri, eta azkenean Udal Elkarteek hartu behar izan dute ekimena eta beraiek izan dira enpresak kontratatu dituztenak. Kontuan hartu behar da ontziek zabor poltsaren %60 osatzen dutela.

Ustekabekorik ez bada, Urola-Kosta Udal Elkarteak martxoan jarriko ditu

edukiontzi berriak eskualdeko herri guztietan. Hasiara batean, 102 edukiontzi izango dira, eta hiru urtez enpresa pribatu bat arduratuko da zaborrak bildu eta Legazpira eramateaz -hango enpresa batek zaborra sailkatu egiten du, materialaren arabera, gero birziklatu ahal izateko-. Urteko 7 milioi pezetako kostua izango du zerbitzu honek.

Bosgarren edukiontzia

Laranja koloreko igluak zaborraren bilketa selektiboa osatuko du. Ez da hirugarren edukiontzia izango, ezta laugarrena ere, bosgarrena baizik: Paperarena -urdina-, beirarena -berdea-, pilena -horia-, eta beste

guztia biltzeko erabiltzen dena. Bosgarren edukiontzi honetan ondorengo gaiak bakarrik bilduko dira:

-Metalezko ontziak: Arrainak kontserbatzeko latak (sardinak, antxoak, atuna...), frutak eta barazkiak kontserbatzekoak (piña, melokotoia, piperrak, tomateak...), edari-latak (garagardoa, freskagarriak...).

-Plastikozko ontziak: Garbitzeko produktuenak (xanpuak, xaboiak,...), etxerako olioarenak, edariarenak, yogur edota kakao poteak...

-Tetrabrik-ak: Kartoiz, aluminioz eta plastikoz egindako ontziak dira hauek, eta normalean

ERTZ informatika



ORDENAGAILUAK
CD-ROM
INTERNET



Eusebio Gurrutxaga, 6

Tel. 943 14 33 95



Amaiako plaza, 13 Tel. 860758

esnea, zukuak edota ardoak gordezteko erabiltzen dira.

Euren baitan plastikoa, metala edota goma izan dezaketen arren, ezin dira edukiontzi hauetan sartu ondorengo produktuak: aerosolak, jostailuak, elektragailu txikiak (irradiak...), biberoiak, gomazko eskularruak, espumak, konpresak eta antzerakoak, zartaginak eta sukaldeko beste ontziak... Zalantza izanez gero, onena edukiontzi hau ez erabiltzea da.

Baztertuta gelditzen diren hondakin hauek guztiak ohiko edukiontzira bota beharko dira.

Zabor Bilketa

Edukiontzi laranja: Plastikozko botilak eta poteak, tetrabrik-ak eta kontserbarako latak eta edari-latak.

Edukiontzi berdea: Beirazko botilak, ontziak eta poteak.

Edukiontzi urdina: Papera eta kartoia.

Edukiontzi horia: pila alkalinoak eta botoi-pilak.

Lau gurpileko edukiontzia (betikoa): Beste guztietara bota ezin dena, edota zalantzazko material guztiak.

A ze nahastea!

Honek guztiak nahikoa korapilotsua dirudi, eta Udal Elkarteak informazio

kanpaina bat burutuko du laister, egon daitezkeen zalantza guztiak argitu asmoz. Foiletoak banatuko dira, eskoletan kanpaina egingo da, eta kaleko teatroa ere ez da faltako. Horren ondoren oraindik zalantzak

badituzue, Udal Elkartearekin harremanetan jar zaitezket. Telefono zenbakia: 943 894183. Posta elektronikoa: uke-inguru@jet.es

◀ GONTZALO TORRE / GORKA ZABALETA




SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabiltza
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak

P. Etxezarreta, 19 bis Tel./Faxa: 861416

gidatzeko baimen guztiak



Ur-gintza SL

- SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTALAKUNTZAK
- GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
- ERAIKUNTZA LANAK - BAINUGELAK
- SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa z/g Tel. 148082
20740 IRAETA - ZESTOA Faxa: 148124
78 postakutxa

ileapaindegia

I Z E T A

Urumea, 6 Tel. 862083

Larrañaga
Juango

HARATEGIA URDAITEGIA

Basadi auzategia, 4-A Tel. 862081

taberna JUSTA

eguneroko bazkariak

Erribera kalea, 20

Oier Egaña:
**“Mundialera
 bost eraman
 behar zituen,
 eta ez hiru
 bakarrik”**

*Ziklo-kroslari zumaiaarak
 Holandan jokatu diren
 Munduko Txapelketan hartu
 du parte. Oier Egañak ziklo-
 kroslari guztien ametsa
 gauzatu du aurten: Munduko
 Txapelketan parte hartzea. 23
 urte baino ez ditu eta Van der
 Poel, Gronendaal, Pontoni, De
 Clercq eta Nijssen ondoan
 korritzeko aukera izan du. Ez
 zuen proba amaitu, baina
 Holandan bizitako
 esperientzia ez zaio inoiz
 ahaztuko: “50.000 lagun
 zeuden proba ikusten. Giro
 ikaragarria zegoen”. Oierrek
 ziklo-krosa aukeratu du,
 “kaminoko ziklismoak
 denbora gehiegi kentzen
 baitizu, erreta bukatzen
 duzu”.*



Oier Egaña Holandan jokaturako munduko ziklo-kros txapelketan.

Xabier Usabiaga / Egunkaria.

3 Oier, zuk beti nahiago izan duzu ziklo-krosa.

Nik hasieratik egin dut ziklo-krosa. Bigarren urteko kadetetan hasi nintzen, eta hortik gora urtero ziklo-krosa egin dut, 23urtez azpikoetan urte batean izan ezik. Orduan errepiderako prestatu nintzen bereziki. Frantziako proba batzuetan ondo ibili nintzen, profesionalen ondoan, baina gero denboraldi osoan ez nuen gauza aipagarririk egin. Errepidean zerbait lortzeko zeure burua nabarmendu behar duzu eta oso zaila da. Erre egin nintzen. Gero ziklo-kroseko denboraldia hasi zen baina errepidean hainbeste kilometro egin eta gero, gaizki ibili nintzen.

3 Aurten gauzak hobeto joan dira.

Aurten gauzak beste era batera egin ditut. Errepideko lasterketetan aritu naiz, baina prestakuntza modura. 13 karrera korritu ditut, inolako presiorik gabe. Eibarko CDR taldearekin ari naiz orain, eta errepiderako erraztasun

guztiak eman dizkidate, badakitelako ziklo-krosa dela nire helburua. Proba batean erretiratu nahi badut, ez da ezer gertatzen. Gainera, ziklo-kroserako babeslerik aurkitzen ez banuen laguntzeko prest zeudela esan zidaten. Oso ondo portatu dira eta beraiek ere gustura daude, egunkarietan-eta dezente agertu baita taldearen izena.

3 Orain arte egin duzun denboraldi onena izan al da?

23 urtez azpikoen mailan izan nuen baita ere urte on bat. Elitekoekin korritzen hasi nintzen urte hartan, eta Espainiako selekzioarekin Italiara eta Holandara joan ginen Munduko Kopako probak korritzera. Baina harrezkero, gaizki ibili naiz, Txapelketetan batez ere. Aurten berriz, gauzak hobeto joan dira. Valentzian, Espainiako Kopako proban hirugarren egin nuen, Seco eta Plaren atzetik. Denboraldi hasieran Zornotzako proba irabazi nuen.

ETXANIZ
ARozTEGiA

Narrondo, 4
 Tel. 943 86 03 12

ateak

tarimak

neurritako altzariak

eta abar

ARozTEGiA

Urola 2000, s.l.

- *Eraikuntzen akabera eta dekorazioa
- *Baserrien zaharberritzea
- *Enbarkazio konponketa
- *Ate, zokalo tarima eta pertsianak
- *Armairu enpotratuen aurrealdea
- *Aroztegi metalikoa

Basusta bidea z/g Tel. 143505

**Espero al zenuen Pascual hauta-
tzailek Mundialerako deitzea?**

Nik pentsatzen nuen beti bezala bost eramanez gero sartuko nintzela. Gero, esan zutenean bi edo hiru joango zirela etsi egin nuen. Badakigu Mundialean ez dugula gauza handirik egingo, baina denboraldi osoan ondo ibili eta gero merezitako saria da. Federazioak esan zuen ez zegoela bost eramateko dirurik, eta Eliteko bi plaza eta Sub23ko bat kendu zituzten, emakumezko hiru eramateko. Berez, maila bakoitzetik bost eramanez beharko lituzkete. Gainera, gero Holandara joaten zara eta korredore adina Federazioko jendea dago. Aurrekonturik ez dagoela esaten dute, eta gero korredoreak ez diren jende mordoan eramaten dute.

Pascualek emandako zerrenda horrekin izugarrizko zalaparta sortu da.

Aurten korredore batzuk ziklo-kroserako prestatzen egon gara bereziki. Bost edo sei nahikoa maila onean ibili gara. Lehen atzerritarrak etortzen zirenean doblatu egiten gintuzten. Orain lauzpabost minutu ateratzen dizkigute. Jendea Mundialera joateko gogotsu zegoen eta Federazioak ez zuen azken unera arte esan hiru bakarrik joango zirela. Bagenekien Pla eta Seco seguru joango zirela, eta gero beste hiru geunden: Mena, Igor eta ni. Azken probara arte ez zuen ezer esan. Ni Ipazterren onena izan nintzen hiruren artean eta azkenean ni eramatea erabaki zuen. Berez denok joan behar ginen Mundialera.

Maila duten bost egonda, zergatik Eliteko bi plaza kendu?

Ez dauka zentzu handirik. David Secok berak esaten zuen horrek ez zuela hankarik ez bururik. Denboraldi osoan puntan ibili eta gero ez bazaituzte Mundialera eramaten, normala da jubentzek errepidea aukeratzea. Elitean horrelako maila parekoa egonda, jubentzetatik ken zitzaketen bi plaza horiek denontzako dirurik ez bazegoen.

“Antolatzaileek esan zuten 50.000 ikusle zeudela. 12:30etarako joan ginen hara zirkuitua nolakoa zen ikustera eta ordurako jende mordoan zegoen, denak builaka. Lotsa eta dena ematen zuen han ibiltzeak”

Zer moduzko lasterketa egin zenuen?

Txarra, ez nintzen batere ondo aurkitu. Bigarren itzulian erretiratu egin nintzen. Secorekin batera atera nintzen, erritmo ona hartzeko asmoarekin, hasieratik dena eman gabe. Lehen itzulia eman eta gero, atzera eta atzera egin nuen. Ez nuen batere gozatzen eta erretiratzea erabaki nuen, jarraituta ere bosgarren itzulirako harrapatuko nindutelako.

Zer moduzko giroa zegoen barrutiaren inguruan?

Hura ikaragarria izan zen. Antolatzaileek esan zuten 50.000 ikusle zeudela. 12:30etarako joan ginen hara zirkuitua nolakoa zen ikustera eta ordurako jende mordoan zegoen, denak builaka. Lotsa eta dena ematen zuen han ibiltzeak.



Ziklo-krosarekin jarraituko duzu, edo ze asmo dituzu etorkizunerako?

Oraindik gaztea naiz eta badakit urte batetik bestera ezin dela miraririk egin. Mundialean 30 urteko txirrindulariak ziren asko. Nire asmoa da lau urtean ziklo-krosa lanarekin batera eramatea -elkarrizketa egin diogun egun berean hasi da lanean Zumaia lantegi batean-, eta gero zerbait egin dezakedala ikusiz gero, Belgika aldera joaten saiatu.

Mundialera joan aurretik euskal selekzioaren aldeko aldarrikapena egin zenuten Bilbon.

Bai, eta horrekin eta izan dugu sesio txikiren bat. Guri ESAITekoez eskatu ziguten Mundialean zerbait lortuz gero argi eta garbi adierazteko nongoak ginen, euskaldunak alegia. Espainiako Federazioan ez zitzaizkien batere gustatu, baina ez da hortik pasa. Guri inork ez digu esan Mundialera ez joateko. Hori ezin zaio eskatu kirolari bati. Bakarrik esan ziguten euskaldunak ginela garbi uzteko.

◀ GORKA ZABALETA

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA
ARGIDENDA

Era guztietako instalazioak etxebizitzan, fabriketan eta herriko argietan

Izaga, 1 behea Tel./Faxa: 143402

TAILERRA: Estazioko kalea, 24
Tel. mugikorra: 908 -143409

xirula
Argazki eta bideo erreportaia
Errebelatzeak
Kamarak
Musika

Erribera kalea z/g

Tel. 861705

Igor Beristain:
**“Mendekua
izan da; gu
izorratzera
joan dira”**

Igor Beristain albiste izan da aurreko asteotan, Espainiako hautatzaileak bera eta Francisco Mena bilbotarra Mundialerako zerrendatik kanpo utzi baitzituen, funtsezko arrazoirik gabe. Igorrek nahikoa meritu egin du aurten Holandan izateko, baina Pascualek bost txirridulari eraman beharrean hiru baino ez zituen hautatu. Igor eta Espainiako Federazioko buruen arteko harremana zeharo aldrebestu da, eta zumaiarrak ez daki datorren denboraldian zer egingo duen. Gauza bat argi du, ordea, Espainiako Federazioan aldaketarik ez badago ziklokrosak hondoa joko duela.



■ Igor, zer gertatu da horrenbesteko zalaparta sortzeko? Aurreko urtetik omen dator arazo hau.

Lehengo urtean Pascual hautatzaileak galdetu zidan ia Mundialera joango nintzen era baietz erantzun nion, baina gero estamuko arazoak izan nituen. Proba batzuk egin zizkidaten eta medikuak esan zidan atsedena hartzea komeni zitzaidala. Orduan informea bidali nuen Espainiako Federaziora eta ezin nuela joan esan nion hautatzaileari.

“Pascualek berak deitu zidan, argazkia eta karne-taren fotokopia behar zituela, pasaporte egiteko. Orduan galdetu nion ia ziur joango nintzen. Erantzun zidan hiru edo lau eramanez gero baietz”

Ez zitzaion gehiegi gustatu, baina horretan gelditu zen, nire lekua betetzeko jende asko baitzegoen prest. Hori horrela gelditu zen.

■ Itxura denez hura ez zitzaion ahaztu. Aurten zer gertatu da?

Aurten denboraldi hasieran ez zen ezer arrarorik gertatu. Esan ziguten Espainiako Kopako probetara joateko horrek gero Espainiako selekzioari begira balioko zuela-eta. Den normal joan da Espainiako Txapelketara arte-urtarrilaren 9an, Asturiasen-. Lasterketaren bezperan bat-batean bota zidan ia Mundialera joateko asmorik banuen. Une hartan jende mordoaren artean geunden eta ezustean harrapatu ninduen. Hurrengo egunean erantzungo niola esan nion. Lasterketa korritu eta gero, aldatzen ari nintzela Xabier Usabiaga eta Unai Larrea kazetariak esan zidaten Pascualek ez ninduela aurre-zerrendan sartu. Ezin nuen sinetsi eta beregana joan nintzen azalpen eske. Berririo galdetu zidan ia joateko prest nengoen, eta nik baietz, joateko gogoia banuela. Orduan esan

GIZARTEKINTZA zentru soziala

KAFETEGIA - JATETXEA

- Eguneko menua
- Plater Konbinatuak
- Kaxuelitak
- Kuadrillentzako afariak

Eusebio Gurrutxaga plaza, z/g Tel. 943 86 17 00

• denontzat irekia



Gipuzkoako Foru Aldundia
Gizarte Zerbitzuetarako departamentua



zidan lasai egoteko, emandako zerrenda behin-behinekoa zela. Hori horrela gelditu zen.

Baina azkenean ez zintuen zerrendan sartu.

Hurrengo astelehenean Pascualek berak deitu zidan, argazkia eta karnetaren fotokopia behar zituela, pasaporte egiteko. Orduan galdetu nion ia ziur joango nintzen. Erantzun zidan hiru edo lau eramanez gero baietz, bi bakarrik joaten baziren Seco eta Pla izango zirela. Aste osoan berriro noiz deituko zuen zain egon nintzen, baina Pascualen berririk ez. Larunbata iritsi zen eta Gipuzkoako Txapelketa genuen Aizarnazabal. Pascual han zela esan zidaten. Proba amaitu ondoren, berriro Unai Larrea etorri zitzaidan eta esan zidan Pascualek hiru izen eman zituela Mundialerako eta ni ez nengoela tartean. Ezta Mena ere. Oier zihoala esan zidan.

Inolako azalpenik eman al zizuen?

Ihesi zihoala harrapatu nuen Pascual. Azalpenak eskatu eta esan zidan bi bakarrik eraman behar zituela. Nik esan nion hori gezurra zela, hiru eraman behar zituela. Orduan esan zidan agian nire lehengusua izango zela hirugarrena. Haren aurretik bizpahiru bageundela esan nion nik. Ospa egin zuen. Hurrengo egunean Ipazterrera joan ginen. Proba hasi aurretik gurutzatu ginen eta ez zidan kasurik egin. Orduan konturatu nintzen ez nintzela Mundialera joango. Mena etorri zitzaidan kontu berarekin, berari ere ez ziola aurpegira begiratu. Proba bukatu ondoren hautatzailearen bila joan behar izan genuen azken erabakiaren berri jakiteko. Helmuga inguruan topatu genituen, Pascual eta Izkara, biak. Izugarritzko iskanbila sortu zen. Menak

mekanikoak jo nahi zuen eta izugarritzkoak esan zizkioten. Menak eta nik lasaitzeko esan eta azalpen bat eskatu genion Pascuali. Hark ez gindoazela gogoia ematen ziolako. Hori ez zela arrazoi bat esan genion guk, ziklo-krosa hondatzen ari zela eta beraiek hor egon bitartean ez zegoela zereginik. Alde egin zuen Pascualek, eta pixka bat aurrerago Txutxi Izkararekin egin genuen topo, Espainiako Federazioko presidentearekin. Berotu egin zen eta iaz joan ez izana leporatu zidan. Hor garbi gelditu zen mendekua izan dela. Menari esan zion iaz ez zuela jarrera zuzena izan, parrandan ibili zela. Gezurra zen, parrandan bere gelako beste bat ibili baitzen.

“Hark ez gindoazela gogoia ematen ziolako. Hori ez zela arrazoi bat esan genion guk, ziklo-krosa hondatzen ari zela eta beraiek hor egon bitartean ez zegoela zereginik”

Bost eramateko aukera badu, zergatik hiru bakarrik? Lehen bost joaten ziren, eta aurten hiru bakarrik eraman ditu. Esan zigun ez zegoela lau edo bost eramateko dirurik. Orduan inor ez joateko erantzun genion. Garbi dago mendekua izan dela. Oier zergatik eraman duen ez dakit, baina bai gu zergatik ez gaituen eraman. Pascualek berak onartu zuen Secoren ondoren ni eta Mena izan ginela denboraldiko onenak.

Eta hemendik aurrera zer? Hauek jarraitzen badute zuk bizikleta utziko duzula irakurri dugu.

Datorren denboraldian hor jarraitzen badute bizikleta utziko genuela esan genion, baina berak erantzunik ez. Orain ez dakit zer egingo duan, ez daukat ezertarako gogorik. Taldean esan didate lasai egoteko, ez dela ezer gertatzen, baina ederki izorratu gaituzte. Guk badakigu Mundialean ez dugula ezer egingo, baina denboraldi osoan zehar egindako lanaren saria da. Munduko onenekin egotea sari bat da, eta zure izena eta babeslearena - Saunier Duval- komunikabideetan agertzen dira. Hamar urte daramatzate hor eta esaten dute ziklo-krosa indartu egin behar dela. Horrelako erabakiekin ziklo-krosarekin amaitzea baino ez dute lortuko. Gainera, ez da horrelako bat egiten didaten lehen aldia. Jubeniletan Euskadiko txapeldun izan nintzen, hamar karrera irabazi nituen, eta Izkarak nire atzetik zegoen bizkaitar bat eraman zuen, bera ere bizkaitarra delako.

“Datorren denboraldian hor jarraitzen badute bizikleta utziko genuela esan genion, baina berak erantzunik ez. Orain ez dakit zer egingo duan, ez daukat ezertarako gogorik”

Gipuzkoako eta Euskadiko Federazioak zerbait esan beharko lukete, ezta?

Oraingoz ez dira mugitu, baina nik uste dut Euskal Federazioak zerbait egingo duela datorren denboraldiari begira. Urtero arazoak daude Espainiako Federazioarekin eta jende asko dago aldaketa bat eskatzen.

◀ GORKA ZABALETA

- Arrainak eta haragiak aukeran
 - Eguneko menua
 - Jangela klimatizatua

Juaristi
JATETXEA

Basadi auzategia, 10 Tel. 861853

J * Eguneroko bazkaria
 A * Pintxo eta bokatak
 T * Koadrilentzako menu bereziak
 E * Kazuelitik eta plater konbinatuak
 T
 X
 E
 A

kalari Erribera kalea, 16
 Tel. 862517

Ekin zaio bigarren faseari



Txapelketako lehen faseko partiduak jada amaituztat emanda, liga eta kopako partiduei hasiera eman zitzaien joan den hilaren amaieran. Oraindik bi asteburu bakarrik badaramatzagu ere fase honetan, emaitzei dagokienez argi ikusten da aldaketak izan direla. Lehenengo ligaxkan oso ongi ibilitako talderen bat edo beste emaitza eskasagoak izaten ari den bitartean, makal hasitako beste batzuk suspertzen ari direla dirudi. Aldaketa honen arrazoi nagusia ziurrenik, oraingo multzoak orekatuagoak direla izango da. Izan ere emaitza onenak izandako taldeak multzo berean izatean, konpetentzia handiagoa da,

eta ondorioz kopan oreka hori nabari da.

Lehen fasearen ondoren, honela geratu dira multzoak.

LIGA:	KOPA
Trapaia	Txixapa
Ederki	Inpernupe
Basarri	Siete Mares
No Soluxion	Asier Kirolak
Kalari	Txikixa
Oskarbi	Ipurbeltz
	Buitraker

Bestelakoan, esan behar txapelketaren ardura laupabost lagunen eskutan geratu zenetik hobeto doala guztia, nahiz eta oraindik ere talderen batek edo bestek partidura huts egin duten. Aipatu, antolakuntza taldeak egutegian aldaketak egitea erabaki duela, denbora tarte txikiagoan partidu gehiago jokatu ahal izateko, beraz kartelei adi.

Beste eragozpenik ez bada, aurreikusi bezala San Telmotarako bi multzotako finalistak erabakita izango dira.

Besterik gabe, ea txapelketa amaiera polita ikusten dugun, eta bitartean ostikadak baloiari eman.

BIGARREN FASEKO EMAITZAK

LIGA			KOPA				
Trapaia	1	No Soluxion	1	Inpernupe	4	Siete Mares	1
Ederki	8	Oskarbi	1	Asier Kirolak	1	Buitraker	2
Basarri	0	Kalari	1	Txikixa	7	Txixapa	2
Trapaia	5	Oskarbi	1				

Kresala
— edergintza —

- Depilaketa (beroa, epela)
- Minik egiten ez duen depilaketa elektrikoa
- Aurpegia edertzeko sendabideak
- Gorputza edertzeko sendabideak
- Lurrindegia
- Solarium-a

Baltasar Etxabe, 5
Tel. 943 14 31 35

KUKUTZ
serigrafia

- *kamisetak
- *txiskeroak
- *paperezko poltsak, e.a.

baltasar etxabe 7 tel: 86 05 69

LIBRERIA AIZPURUA

R
U
D
E
N
D
A

Aita-Mari auzategia, 17
Tel. 943 861569

otsaila

IKASTAROAK

- Word (I) eta Excel (I) ikastaroak. Bakoitza 20 ordukoa. Ikastaroa hasteko egunak: Otsailaren 21ean Word eta Martxoaren 6an Excel.
- Ipuinak kontatzen ikasteko ikastaroa euskaraz. 24 ordukoa. - Marrazketa artistikoaren lehen urratsak. 10-17 urte bitartekoentzat. 3 hilabeteko iraupena.

ERAKUSKETAK

- Saharako herriari buruzko erakusketa: **"Askatasunaren basamortua"**.
- ▶ Otsailaren 17tik martxoaren 14ra arte, **Oxforden**
- Altzarien Berritze ikastaroan egindako lanak izango dira ikusgai.
- ▶ Martxoaren 8tik 22ra **Forondan**

IRTEERA

- Eski irteera. Izen-ematea Polikiroldegian, martxoaren 4a bitartean. Ikasten edota langabezian diren gazteentzat laguntza bereziak egongo dira.
- ▶ martxoaren 11-12 asteburuan

SAHARAKO ERAKUSKETAREN INAUGURAZIOA.

- "Askatasunaren Basamortua",
- ▶ Otsailak 17, osteguna, 19.00etan

ANTZERKIA

- Kalakariak antzerki taldearen eskutik, **"Atrakoya!"**.
- ▶ Otsailak 18, ostirala, 22.30etan **Aita Marin**

MENDI ASTEA 2000

- diapositiba emanaldiak.
- ▶ Otsailak 18, 21, 22, 24 . **Forondan**

ZINE FORUM SAIOA

- "Happiness".
- ▶ Otsailak 24, osteguna, 22.15etan **Aita Marin**

"CORAL 25 DE JULHO"

- abesbatza brasildarraren emanaldia.
- ▶ Otsailak 25, ostirala, 20.00etan

INAUTERIAK

- ▶ Martxoak 3tik 6ra bitartean

HERNANIKO "KANTUZ ABESBATZA"REN EMANALDIA.

- ▶ Martxoak 4, larunbata, 20.15etan **San Pedro parrokian,**

INAUTERIEKON KONTZERTUA.

- Zumaiako Udal Musika Bandaren eskutik
- ▶ Martxoak 4, larunbata,

ZINE FORUM SAIO BEREZIA

- Emakume eguna dela eta : **"Agnes Browne"**
- ▶ Martxoak 9, osteguna, 22.15etan **Aita Marin**

Jarraitzen duten ikastaro eta zerbitzuak:

PINTURA TAILERRA

LIBURUTEGIA

- Helduentzat
- ▶ Astegunetan, 9.30 - 13.30 eta 16.00 - 20.00.
 - Larunbatean, 10.00 - 13.00
- Haurrentzat
- ▶ Astelehenetik ostiralera, 16.00 - 20.00

ARTXIBO HISTORIKOA

- ▶ Egunero, 10.00etatik 13.00era

INTERNET

- Helduen liburutegian.
- ▶ Astegunetan, 10.00 - 13.00 eta 16.30 - 19.30



Zumaia Hotela

Alai Auzategia
20750 Zumaia (Gipuzkoa)
TEL: 943 14 34 41
FAXA: 943 86 07 64

ZALLA
Taberna - Erreteria

- * plater konbinatuak
- * otartekoak
- * oilasko erreak

San Pedro, 4 Tel. 862387



LEIZE
taberna

Juan Belmonte, 6 Tel. 860415



Loitz

- * Eskola eta bulegorako materiala
- * Enkoadernazioak
- * Fax publikoa
- * Aldizkari eta opariak

Erribera, 4 Tel./Faxa: 143422



Malaur

ZINE FORUM

Otsailak 24, osteguna

Happiness (1998)

Zuz: Todd Solondz

Akt: Lara Fynn Boyle, Philip Seymour Hoffman

Azkenean lortu dute Ostarrenakoek azken urteetako zine amerikar independenteak egin duen maisu lan eskasetako bat Zumaiara ekartzea. *Happiness* hau dudarik gabe maisu lan bat da, amerikar gizartearen kronika zorrotz bat, bertako gizon eta emakumeak nolakoak diren erakusten duena. Era guztietako pertsonaiak pasatzen dira film honetatik: psikiatra pederasta bat, dei lizunak egiten dituen gizakia, bizitzan hondo-hondoraino erori nahi duen idazle arrakastatsua, jende guztiak adarra jotzen dion neska tuntuna, masturbazioarekin arazoak dituen mutil koskorra, etab. Gai hauek lantzean modu melodramatikoa erabili beharrean Solondzek umorea erabiltzen du. Pantailan gai oso mingarria azaltzen bada ere, ikusleak barre egingo du. Hori da besteak beste, film honen merituetako bat, gai aldetik telefilm bat izan litekeena Solondzek komedia bikain bihurtzen du. *Happiness* pelikula "politikamente inkorrektu"-a da, ikuslea aspertuko ez duena.

Martxoak 8, asteazkena, Emakume Eguna


Agnes Browne (1999)

Zuz: Anjelica Huston

Akt: Anjelica Huston, Tom Jones

Martxoaren 8an Emakume langilearen eguna ospatzen dela eta, zine-foro saio berezi bat antolatu da Aita Mari zinean, azken urteetan bezala. Bertan Anjelica Huston aktore eta zuzendariaren azken filma pantailaratuko da. *Agnes Browne* 1999ko Donostiako Zinemaldian estreinatu zen eta ikusle aldetik arrakasta handia izan zuen. Jakina, Irlandako istorio bat agertzen da filmean, eta ondo dakigunez Irlandako edozein gaik Euskal Herrian oihartzun handia izaten du. Film hau Anjelica Hustonen bigarren lana da, eta aurrekoan ez bezala, oraingoan umore handiko pelikula bat egin du. Emakume batek egina eta emakume bitxi baten historia kontatzen duena. Gainera, mitomanoentzat, film honetan, Tom Jones abeslari bakarra, "unikoa" ateratzen da, eta horrek film hau gomendatzeko nahikoa izan beharko luke.

Irakurketarako aukerak



Euskaraz

Eta emakumeari sugeak esan zion Lourdes Oñederra

Hamabi galdera pianori Juan Kruz Igerabide

Merry Christmas, Panama"

esan zuen heriotzak

Koldo Izagirre

Hautu-lanerako poemategia

Gerardo Markuleta

Manhattan transfer

John Dos Passos



Gaztelerez

Bariloche

Andrés Neuman

El largo camino a casa

Danielle Steel

Paso a dos


Ramón Pernas

Arabia

Gretta Mulrooney

Las partículas elementales

Michel Houellebecq



Haurrak/Gaztetxoak

Nire kuloak

Anjel Lertxundi

Nahiago nuke mutila banintz!

David Duran

Pareta zuloa

Jesus Ballaz Zabalza

Pottoko tripontzia

Pello Añorga

Jonasen pena

Juan Kruz Igerabide

Tel. 143278

KERASTASE
PARIS

Maite
ileapaindegia

ile-apaindegia

Maxi

ETXEZARRETA, 9
TEL: 943 86 10 21

MILA ILE APAINDEGIA

Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA



basque electronic diaspora #1

BASQUE ELECTRONIC DIASPORA

Esan Ozenki 1999

Euskal musika elektronikoaren garaia iritsi da, Basque Electronic Diaspora izeneko disko honek makina bat soinuri ateak ireki dizkio, Euskal Herriko gauet beste dimentzio bat eskainiz. Bi urte pasa dira proiektu honen lehen urratsak martxan jarri zirenetik, baina azken emaitza kalean da joan den urtetik. Izenak dioen bezala munduan zehar sakabanatuta dagoen euskal jendeak sortutako soinu elektronikoak entzun daitezke bertan: Basque Dub Foundation eta Fin de Siècle Londrestik, Estupendo Argenti-

natik, Voodoo Muzak, Templ.a.r., Xano+Em.C, K-Ahba eta J-Rô Euskal Herritik eta azkenik Nutcase eta bxt Paristik, nahiz eta azken honetan B.D.F. eta F.D.S-eko jendeak ere parte hartu duen.

Diskoaren ideia Bixente Iriart, Basque Dub Foundationeko Iñaki Larritu eta Fin De Siècleko Isa Suarez lagunena izan zen. Beste guztiakin kontaktoan jarri ondoren, kanta bildu eta hiruen artean sorturiko bxt-ren "Comunication Dub" kanta sortu zuten, dub nahasketa baten gainean Mikel Laboaren ahotsa sartuz. Ondoren lana argitaratuko lukeen disketxearen bila ibili ziren Esan Ozenkik baiezkoa eman zuen arte. Laboarenaz gain,

disko honek baditu beste kolaborazio batzuk: Mad Profesor, azken aldian saltsa guztietan azaltzen den reggae soinu teknikaria, Transglobal Underground, Revolutionary Dub Warriors edo eta gure Benito.

Zuzenean aurkezteko zenbait emanaldi egin ziren joan den urtean eta musika honek eskatzen duen zuzeneko emanaldiak, ohituta gaudenarekin zer ikusirik ez duen arren, harrera polita izan zuen.

ENTZUN!!

Entzun!! musika aldizkariak formatua aldatu du. Tamaina ia erdia duen arren, formatu berri honek zeharo gaztetu du aldizkaria. Abenduan estreinatu zen Entzun!! berrian, Berri Txarrak, Su ta Gar, Sarrionaindiaren hitzak, Manu Dibango, Easy Star diska etxeaz eta beste askotaz hitz egiten digute. Gainera Fermin Muguruzaren azken Brigadista Sound System diskako zazpi kanten birnahasketak jasotzen dituen konpaktu bat eskaintzen du. Otsaileko alea ere berri pila batez beteta etorriko da.



"Muagi"

- ERREHABILITAZIOA
- KIROL MEDIKUNTZA
- FISIOTERAPIA

Aita Mari 3.blokea
Tel. 943 86 16 91

RPS: 034/97

ILE APAINDEGIA

herea
Uranga

Etkezaretza, 19 Tel. 862342

OSA
BARNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta barnizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 Tel. 861412

Koblakaria





VIVE LA VIDA LOKAAAA



argazki zaharra



Hain denbora luzea Ternuan bakailotan iragan ondoren berriro Zumaiako burnizko zubi berritik bere herri maiteari begira ari da "Toleta txiki"neko Martin. Gaur goizeko bostetako moilatu dira Pasaian, hamaiketarako Getarian zen, eginbeharreko batzuk bete, lagun arte ederrean bazkaldu eta kanpandorreko erlojuan ordu biak hogei gutxi direnean ailegatu da. Poz ederra hartu behar dute etxeok, inork uste baino lehenago iritsi da-eta, baina poz askoz handiagoa hartu behar du Katalinako Marijexuek. Azkenengo San Telmo egunean marinel arteko festa antolatzen, sardinak prejitzen eta abar lagundu zion neskak bera

*itzuli zain pozik egongo zitzaiola bihotzaren berotasuna begietatik irten beharrean esan zionetik, irudi hura besterik ez du ikusi itsaso handi eta hotz haietan lanean ziharduela. Baina orain ja etxean da. Siesta kozkor bat egin ondoren neskaengana joan eta Zumaiako itsasoko gesala berriketa ederrean Katuplazan dastatuko dute, eta beharbada, muxuren bat-edo lapurtuko dio Marijexuei. Azken begirazuna belaontziz ondo hornitutako moila maiteari bota, pardela sorbaldan ondo kokatu eta han doa saltaka batean, zumaiar denei eupa eginez ur handietako haizeek beztutako arrantzale begiurdina. **TXOAZKIN***

Nikol Enea

TABERNA

Amaiako plaza

Tel. 861440

Rosi

garbiketak

* Etxeak eta dendak
* Enpresa eta auzo lanak
* Erropa garbiketa eta tintaketa


Basadi,3-A
Tel. 861670

Urolthermik

Arotzia Metalikoa



POLIURETANOZKO LEIHOAK PERFILTHERMIK SISTEMA



- Aluminiozko leihoak (zubi termikoa etenda)
- Aluminiozko barandak
- Pertsiana mallorcarrak
- Garajetako metalezko atek eta suhesiak

Santixo auzoa, 20. pabilioia
Tel./Faxa: 943 - 86 03 20 ZUMAI

Langileentzako birziklatze ikastaroak



ZUMAIKO INSTITUTUA



arlea	IKASTAROA	orduak	datak
Marrazketa eta diseinu arlea	Autocad 2000 (I)	40	3/20 - 4/13
	Autocad 2000 (II)	40	4/17 - 5/10
	Autocad 2000 3D	40	5/15 - 6/6
	Fabrikazio planoen interpretazioa (I)	20	2/21 - 3/1
	Fabrikazio planoen interpretazioa (II)	20	3/13 - 3/22
	Fabrikazio planoen interpretazioa (III)	20	3/27 - 4/5
Automatismo elektriko arlea	Oinarrizko elektrizitatea	60	6/5 - 7/6
	Automatismoak	70	3/13 - 5/4
	Neumatika eta elektroneumatika	30	2/14 - 3/2
Administrarritza-informatika arlea	Windows 95	20	2/7 - 2/16
	Office word I	20	6/5 - 6/14
	Office word II	20	6/19 - 6/28
	Office access I	20	2/21 - 3/1
	Office access II	20	3/13 - 3/22
	Office integratua	60	2/7 - 3/16
	Internet	20	5/8 - 5/17
	Kontabilitate informatizatua	60	3/27 - 5/5
Ingelera arlea	Oinarrizko ingelera	100	2/14 - 6/30
	Ingelera teknikoa	100	2/14 - 6/30
	Ingelera komertziala	100	2/14 - 6/30
	Laneko segurtasuna eta higieena	20	2/21 - 3/1
Bestelakoak	Landaketa hidroponikoa	30	3/13 - 3/30
	Uren analisisa	30	4/3 - 4/18
	Kalitatea eta etengabeko hobekuntza	42	3/13 - 4/4

* Informazio gehiago nahi duten langileek Institutoko telefonora dei dezakete: 943 86 08 09

KOSTA GAS C.B.



ZERBITZU OFIZIALA

ETXEZARRETA, 6
ZUMAIA
TEL. 861078

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

PRESUPUESTOAK ZURE NEURRIRA
EGITEN DITUGU.
ESKA EZAZU ZEUREA INOLAKO
KONPROMEZURIK GABE

Zatuz eta galdetu

GAS NATURALA
BUTANO
PROPANO



berria!

XSARA

Picasso

ZUMAIA MOTOR



CITRÖEN
ZERBITZU
OFIZIALA

Santixo auzoa, 22 Tel. eta Faxe : 943 143 143

mekanika orokorra • erakusketa • salmenta • bigarren eskuko autoak